

III. PAZKO IGANDEA (B)

Otoitza

Poztu dadila beti, Jauna,
biziberritu eta gaztetu duzun zeure herria;
iguzu, zure seme ordekotza berriturik pozez gaudenok,
uste sendoenaz itxaron dezagula piztuera eguna.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 3, 13-15. 17-19

*Bizi iturria hil zenuten.
Jaungoikoak, ordea, piztu egin du hilen artetik.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Pedrok honela hitzegin zion herriari: «Abrahamen, Isaaken eta Jakoberen Jainkoak, gure arbasoen Jainkoak, goratu egin du Jesus bere zerbitzaria, zuek Pilatori eman zeniotena eta haren aurrean ukatu zenutena, nahiz eta hark askatu nahi izan. Zuek Santua eta Zintzoa ukatu zenuten, eta gizon-hiltzailea askatzeko eskatu; bizi iturria hil zenuten. Jaungoikoak, ordea, piztu egin du hilen artetik; eta gu gara horren testigu.

Badakit, ordea, senideok, zuek eta zuen agintariak, ezjakinean egin duzuela hori. Jaungoikoak, berriz, horrela bete du, Profeten ahoz esana zeukana: Haren Mesiasek nekeak igaro behar zituela, alegia. Damu zaitezte, beraz, eta bihotz-berritu, zuen bekatuak garbi daitezen».

ERANTZUN SALMOA: Sal 4, 2. 7. 9

R/. **Argi ezazu, Jauna,
zure aurpegia gugana.**

Edota: **Aleluia**

Jainko, ene laguntzaile, nik deitzean entzun nazazu,
estualdian lasaitzen bainazu:
erruki zakizkit eta nire otoitza entzun ezazu. R/.

Askok honela dio: «Nork erakutsi guri zorionik,
zure aurpegiaren argia aldendu bada gugandik?» R/.

Etzan orduko, bake osoan loak nau hartzen,
Zuk bakarrik baitidazu, Jauna, lasapide ematen. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Jn 2, 1-5

*Bera da gure bekatuen ordain oparia;
baita mundu guztiko bekatuena ere.*

San Joan Apostoluaren epistolatik

Ene seme-alabok, bekatu egin ez dezazuen idazten dizuet hau.

Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, hor dugu gure bitarteko Aitaren aurrean Jesu Kristo, Zintzoa.

Bera da gure bekatuen ordain oparia; eta ez gure bekatuena bakarrik, baita mundu guztiko bekatuena ere.

Jesu ezagutzen dugula honetatik dakigu: Haren aginduak gordetzetik.

«Nik Hura ezagutzen dut» esan, eta Haren aginduak betetzen ez dituenak, gezurtia da, eta horrelakoarengan ez dago egia. Haren hitza betetzen duenarengan, berriz, Jaungoikoaren maitasun bete dago egia-egiaz. Horretatik dakigu Harengan gaudela.

EBANJELIOA: Lk 24, 35-48

Aleluia: Ik. Lk 24, 32

R/. Aleluia

V/. Jesus Jauna, ager ieazkiguzu Liburu Santuak; sutu gure bihotzak, hitzegiten diguzunean.

*Mesiasek nekaldia jasan behar du,
eta hirugarren egunean piztu egingo da hilen artetik.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik

Aldi hartan, Emausko ikasleek adierazi zuten bidean gertatu zitzaiena, eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean.

Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian, eta esan zien: «Bakea zuekin». Haiiek, ordea, larriturik eta beldurrak hartuta, mamuren bat ikusten zeudela uste zuten. Eta Hark esan zien: «Zergatik zaudete larri, eta sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Begira nire esku-oinak: Neu naiz. Uki nazazue eta ikus; mamuak ez du, ez haragirik, ez hezurrik; Nik, berriz, ikusten duzue baditudala». Eta hori esanik, eskuak eta oinak erakutsi zizkien.

Haiiek, ordea, beren pozetan, oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Bai al duzue hemen jatekorik?» Eta haiiek arrain erre puska bat eskaini zioten.

Hark hartu, eta haien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hau da Nik, zuekin nengoela, esaten nizuena: Moisesen Legean, Profetetan eta Salmoetan Niretz idatzitako guztiak bete beharrak zirela».

Orduan, Liburu Santua ulertzeko ezaguera argitu zien, eta esan: «Honela zegoen idatzirik: Mesiasek nekaldia jasan behar du, eta hirugarren egunean piztu egingo da hilen artetik; Beraren izenean hotsegingo zaie bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena jende guztiei, Jerusalemendik hasita. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, zure Elizak pozik ekarritako eskaintzak,
eta, horrelako poza eman diozunez gero,
emaiozu fruitutzat betiko zoriona.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

Jaunartze ondorengoa

Begira, Jauna,
sakramentuen bidez berriztatu duzun zeure herriari;
eta, bizitza hilezkorrerako egin gaituzunez gero,
emaguzu piztuerara iristea.
Jesu Kristo.